



ANAITASUNA

AÑO II—Núm. 15-16

Suplemento a la Hoja

"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Septiembre - Octubre 1954

FAMILIEN INDARRA

Mundu onetako gauza guztiz zoragarriren bat gogoratu nai dodanean, familia zoriontsu baten irudia etorten jat burura. Eta irudi ori, geienetan, aspaldiko euskal familiaren irudia izaten da.

Zoriontsuak zirean benetan lengo euskal familiak. Baserrietan naiz urietan, orain baiño gitxiago zirean familiaren arerioak, eta eskasago arriskuak. Eleizearen inguruan batuta, bakean bizi zirean gure asabak. Lantzean bein, Ameriketara naiz gerrara joateko, semeren batek agur egiten ebanean; edo etxekoren bat kanposantura eroaten ebenean, orduantxe bakarrik sartzen zirean etxean negarra ta naibagea. Aspaldiko familien bizitza laua ta zoragarrial

Urteak joan, urteak etorri, asko aldatu dira gauzak gure Euskalerrian, eta aldatu bear. Gaurko bizi-moduak, gaurko kristiñau ekanduen nasaitasunak, kili kolo ipiñi dabe euskal familia. Semea eleizara ez doala, alabea nabarmena dala, aita-amak ume geiagorik gura ez dituela, progresua dala ta ez dala, euskal familiak egunean baiño egunean indar gitxiago dauko.

Zer egin, gauzak olan irauñ ez daientzat? Oraindiño sasoi da. Entzun Pio XII'garrenak, Jesukristoren ordezkooak diñoskuna:

"Familiako guztiok, errosario santua batzan errezetan badozue, bakean eta batasunean biziko zaree. Otoitz egiten daben familiak, bizitza zoriontsua izango dau beti.

"Errosario santua familian errezetan dogunean, indarbarritu egiten dira gure kristiñau fedea ta itxaropena, eta geitu egiten jaku Ama Birgiñeaganako konfiantzea. Batzan otoitz egiten dogunean, danok siñisten dogu bardin, danok itxaroten dogu bardin, danok uste dogu bardin. Familien batasunerako, bear bearrekoa da danok fede bat, itxaropen bat eta uste on bakar bat eukitea.

"Familien benetako bizitza, arimen bizitzearen antzera, Jainkoari egiten deusagun otoitzaren bitartez etorten da. Eta orretarako biderik onena, errosario santua da.

"Ze gauza zoragarria, gaubean, lana amaituta gero, familia osoa batuta, errosario santua errezetea!

Danok gura dogu zorionekoak izan. Danok nai dogu bakean eta batasunean bizi gure familietan. Orretarako, errezau daigun guztiok batzan errosario santua. Errezau daigun egunero. Ama Birgiñeagaitik, gure familiakaitik, mundu ederrago bategaitik!



Esaidazu!

Familien bakea ta batasuna lortuteko, zegaitik da ba errosarioa otoitzik egokiena?

KONFESIÑOKO SAKRAMENTUA

Faltsoa ala egia da emen diñoguna?

1.—Bateatuta dagoan persona batek, ilteko arriskuan bakarrik artu leike Konfesiñoeko Sakramentua.

2.—Bateoa artu aurretik egin direan pekatuak, ezin leitekez parkatu Konfesiñoeko Sakramentuz.

3.—Pekatu mortalik egin ez daben persona batek, ezin leike artu Konfesiñoeko Sakramentua.

4.—Ama Birgiñeak ezin eiken artu Konfesiñoeko Sakramentua.

5.—Pekatuak damuak, Jainkozkoa edo supernaturalala izan bear dau. Osterantzean, ez deuskuz Konfesiñoak ezelan-bere pekatuak parkatuko.

(Erantzupenak azkenengo orrialdean)



"Errosarioa errezetan dogunean, Jesus eta Mariaren bizitzako misterioak gogoz ausnartuten doguz gure arima barruan, kristiñau erlegiñoeko otoitzik ederrenak — Aita gurea, Agur Maria ta Gloria — agoz esaten ditugun bitartean.

Beste edozein oraziñotan baiño obeto, familiako errosarioan egiten dira bat gure burutaziñoak, sentimentuak eta asmoak. Ain zuzen-bere, familien batasunerako, bear bearrekoa da arimen alkartasuna. Jesus eta Mariaren bizitzako misterioen bitartez, batzan errezetan dan errosarioak, pentsamentu, asmo ta sentimentu bardintsuak sortu eragiten ditu familiako lagun guztietan; eta onelan, lotu egiten dauz euren arimak maitasun eta sakrifiziozko lokarriak, eta aseguratatu egiten ditu familiaren batasuna ta iraupena."

Pio XII



"Bat eginda errezetan daben familia, beti bat eginda biziko da."

Aita Peyton



DANAK NEGARREZ, BERA IRRIBARREKA

Bein baten, arrapaladan deitu eben abadea, andra gazte ta aberats bat konfesetako. Seiña eginda gero, ilteko zorian egoan emakume errukarria.

Joan zan arñeketan abadea emakumearen jauregira. Sartu zan barrura. Naibagez beterik egozan etxeko guztiak. Ezin eiken iñok sifñistu, emakume ain gaztea, ain zoriontsua ta ordurarte ain sendoa ilgo zanik.

Joan zan aurrera abadea. Sartu zan gaixoaren gelara. Gauza miragarrial An dana zan alaitasuna. Zurbil egoan andrea, ta odol baga. Baiña bere begiak bake ta posez beterik agertzen zirean. Guztiz arrituta geratu zan abadea.

—Jauna—esan eutsan gaixoak—, ez nau Berorrek ezagututen?

—Neure alabatxu—erantzun eutsan eleizgizonak—, orain ez naiz konturatuten nor izan zeintekesan.

—Ez da akordetan, beñiola an kolegioan lenengo komuniñorako Berorrek preparentan zituan neskatoakaz?

—Bai.

—Ba, neu naiz areetariko bat. Berorregaz egin neban lenengo komuniñoa, ta arrezkero sarritan joan naiz Berorregaz konfesetan.

—Bai, bai—esan eban abadeak—, ondo gomutetan naiz.

Eta gazteak:

—Ba-dakit txarto nagoana, eta laster ilgo naiz. Ez deust ardura baiña. Pozik nago, Jauna. Gaztea naiz. Negarrez ikusten dodaz nire guraso maiteak. Senarra, atsekabez erdi zoratuta. Umezurtz koitadu bat ixten dot munduan. Alan ta guztibere, zoriontsu nago, Jauna, guztiz zoriontsu. Ta esango deusat zegaitik: Lenengo komuniñoa egin nebanean, azkenengo berbaldian, Berorrek auxe esan euskun:

—Umeak, errezau egunero errosario santua. Egunean egunean egiten badozue, seguru seguru joango zaree zerura. Auxe esan euskun. Ez da gomutetan?

—Bai, ondo-be.

—Emon beistaz orduan zorionak—esan eban gaixoak—. Laster joango naiz zerura, lenengo komuniñoa artu nebanezkeroztik, errosario santua egunean egunean errezau dot-eta. Berrogetamar bidar esan deusat egunero Ama Birgiñeari: "Erregutu eizu gu pekatarien alde orain eta gure eriotzako orduan." Zelan itxiko nau ba bertanbera Ama maite orrek une onetan?

Eta au esan ondoan, agoliñan sartuta, beingo baten il zan. Artu eban Ama Birgiñeak bere arimea, eta aingeruz inguraturik eroan eban zerura.



1.—**Faltsoa.** Bateatuta barik da-
goan personeak, ezin leike iñoiz artu
Konfesiñoako Sakramentua.

2.—**Egia.** Bateatuta gero egin di-
rean pekatuak, orreexek bakarrik
parkatuten dira Konfesiñoako Sakra-
mentuaz. Bateo aurreko pekatuak,
Bateoagaz beragaz parkatuten dira.

3.—**Faltsoa.** Pekatu astunik euki
ezean, persona orrek pekatu ariñak
konfesau leikez.

4.—**Egia.** Ama Birgiñeak ez eban
iñoiz pekatuak egin, ez astunik, ez
ariñik. Orregaitik, ezin eiken artu
Konfesiñoako Sakramentua.

5.—**Egia.** Gure pekatuen damuak,
Jainkozkoa edo supernaturala izan
bear dau. Jainkoa ofendidu dogulako
atsekabea euki bear dogu biotzean.
Bestela, gure damua naturala izango
litzake. Esate baterako: noredonor
ofendidu dogulako edo bere aurrean
izen ona galdu dogulako edo onelako
beste errazoi gizonetako bategaitik
damutuko bagintzaz, Konfesiñoako
Sakramentuak ez leuskiguz pekatuak
parkatuko.

"Gure indar guztiak geitu ta batu-
teko ordua etorri da. Egin daiguzan
alegiñak, Bizkaiko familia guztiak
Errosario Santua egunean egunean
errezetako inbitaziñoa artu daien, eta
oitura eder au, galdu dan etxeetan,
barriro biztu daiten."

Kasimiro, Bilbaoko Obispo Jauna

KURUTZEGRAMA N.º 12

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

Ezkerretik eskumaldera: 1. Egongo lit-
zakez.—2. Bitsa. Futbolariak sartzen dabe.—
3. Domeketan entzuten dogu. Kolore bat.—
4. Josteko erabilten dogu (atzekoz aurrera).
Konsonante letrea.—5. Bokal letrea. Gabaz
egiten dogu.—6. Neguko gauza zuri bat (atze-
koz aurrera). Laiakaz naiz atxurragaz ataraten
dan lur zatia.—7. Udabarriko gauza polit bat
(atzekoz aurrera). Atzera eragiteko beieri esa-
ten jake.—8. Nebazan. Bokal letrea.

Goitik beera: 1. Bermeo ta Mundaka bi-
tarteko atx punta bat.—2. Oilloen familiako
egazti bat. Erri.—3. Gazi ez dana. Daukot.—
4. Eguraldi (atzekoz aurrera) Buruan daukogu
(atzekoz aurrera).—5. Konsonante letrea. Bok-
kal letrea.—6. Leku baten izan. Odola ibiltan
dan lekua.—7. Ordaindu bearra. Garbi ez da-
na.—8. Bizitzea kendu (atzekoz aurrera). A-
rantzazuko eleiza barria egiten daben arki-
tektu baten apilledua.



AZALPENA. Ezkerretik eskumaldera:
1. Legokoz.—2. Apar. Gol.—3. Meza. Ori.—4.
Art. N.—5. A. Lo.—6. Edur. Zoi.—7. Lora. Aiz.
—8. Nitan A. **Goitik beera:** 1. Lamitan.—
2. Eper. Uri.—3. Gaza. Dot.—4. Aro. Ule.—
5. K. A.—6. Egon. Zan.—7. Zor. Lot.—8. II.
Oiza.